



AKTA

Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko otsailaren 6an buruturiko ohiko saioari dagokiona.

Zestoako Udaletxean, bi mila eta hemezortziko otsailaren seian, Jose Francisco Mendizabal Irigoien Alkate jauna mahaiburu delarik, Gorka Unanue Zabala eta Mikel Arregi Urrutia korporakideak bildu dira.

Ondorengo akordioak hartu dira:

1.-Bere osotasunean onartzen da Gobernu Batzordeak 2018ko urtarrilaren 16an buruturiko saioari dagokion akta.

2.- S.U.A., Narrondo auzoan kamioiek gaizki aparkatzen dutela dio, sarritan errepide nagusian etxera pasa ezinik geratu direla. Hori dela eta, marra horiak margotzea edo aparkalekuak erregulatzea eskatzen du. Erabaki da jakinaraztea Zestoako eta Zumaiaiko Udalak aparkalekuak margotzea adostu zutela, eta 2018ko urtarrilaren 31n udal bakoitzak zegokion udalerriko aparkalekuak margotu zituela.

3.- J.E.L.ri, Zubimusu kalea 10 4D etxebizitzako lehio batzuk aldatzeko udal baimena ematea, akordioan ezarritako baldintzen arabera.

4.- Ura Ur Agentziak, Irao baserria eta Sastarrain baserri-eskolaren lur ez-urbanizagarriaren inguruko Zestoako planeamenduaren Arau Subsidiarioen aldaketaren inguruko txostena igorri du. Erabaki da promotoreari helaraztea txostenaren kopia bat.

5.- M^aL. E. M., Arroabeko Tellendi industrigunean garbitegi industrial bat irekitzeko udal baimena eskatu du. Erabaki da jakinaraztea jarduera baimena tramitatu ahal izateko, gas-hornidura instalazioaren xehetasunak zehaztu beharko direla.

6.- Eskuderia Lagun-Arteak, uztailaren 14an XV.Azpeitiko Rallya izango dela jakinarazi eta herriko plazan kotxeak uzteko baimena eskatzen dute. Erabaki da adierazitako egun eta ordu tartean kotxeak plazan uzteko baimena ematea.

7.- J.R.A., Aizarnako garbitokia egoera txerrean dagoela dio, teilatua ez dagoela ondo eta arriskua ekiditeko neurriak hartzea eskatzen du. Erabaki da hurrengo batzordean aztertzea gaia.

8.- J.A.S., Lasaoko Herri Etxean dagoen uraren termoak arazoak ematen dituela dio, elektrikoa dela eta sarritan argindarrak saltatu egiten duela. Honela, gas instalazioa egina dagoenez, termoa bertara konektatzeko eskaera egiten du. Erabaki da oraingo termoa kendu eta gas-instalazioari egokituriko termoa jartzeko. Elkarte gastronomikoari loturiko behar bat denez, elkarteak berak egin beharko du gastu honen kargu.

9.- E.Z.U., Zestoatik Bainuetxerako bi bideak (futbol zelaiaren azpikoa eta goikoa) ez daudela baldintza egokietan dio, are gehiago, bidegorri moduan.



Beheko bidea lokaztuta eta argiztapen gutxirekin, eta goikoa zuloz beteta. Gaineratzen du herritarrentzat eta turismoa egitera etorri direnentzat ez daudela bideak ondo eta txukun prestatuta. Ondorioz, zuloak estaltzea eta argiztapen egokia jartzea eskatzen du. Erabaki da, futbol-zelai zaharraren eta Urola ibaiaren artean igarotzen den bidea konpondu egingo dela behar den guneetan. Argiteri publikoari dagokionez, epe ertainera argi hauen buruak Led sistemara aldatzea aurreikusten da.

10.- A.J.E., Arteaga auzunean dituzten hainbat arazoren inguruko idatzia aurkezten du: faroletako argiztapena, arratoiak, hormetako pintura, lur labainkorrak goroldioekin eta lorategietan hesi falta. Erabaki da jakinaraztea Led sistemako farola berriak jarriko direla; enpresari jakinaraztea Arteaga auzoko gune honetan arazoa dagoela arratoiekin, tratamendu berezia egin dezaten; Lur labainkorrari dagokionez, udal brigadaren lanetan sartuko da, inguru horretako espaloiak presiodun makinarekin garbitu ditzaten eta ohartaraztea Arteaga 14 zk.ko komunitateak jarri ditu beraien etxe beheko lorategian harriak. Honegatik ez dagokio udalari Arteaga 16ko lorategian harriak jartzea.

11.- I.M.Z., frontoi zahar atzean dauden bi zuhaitzak gero eta handiago hazten ari direla dio, frontoiko pareta erortzeko arriskua dago. Erabaki da bi zuhaitz horiek moztean eta epe ertainera, bertako jatorria duten 2 zuhaitz aldatuko dira, gune honetarako egokiak direnak.

12.- G.L.A., Idiazpiko dantza lokalera doazen haurrek ogitarteko zatiak lurrera botatzen dituztela dio. Horrela, hondakin horiek jasotzeko zakarrontziak jartzea eskatzen du. Erabaki da dantza lokalaren kanpoaldean kartelak jartzea, hondakinak lurrera ez botatzeko eskatuz eta umeei oharrak banatzea.

13.- J.A.F., Arteaga auzunea 13 eraikineko fatxadan obra egin nahi dutela eta Udalari obra baimena eskatzen dio. Horretarako zer betekizun dituzten jakin nahiko luke. Erabaki da jakinaraztea obra baimena eman ahal izateko, egin asmo dituzten obren proiektua aurkeztu beharko dutela Udalean.

14.- C.P.S.L., Sansinenea Industrialdeko B-2-2 pabiloian uraren kontadorea jartzeko eskaera egiten du. Horrekin batera, pabiloian eraikitzen ari diren ofizinen atea egiteko baimena ere eskatzen dute. Erabaki da jakinaraztea enpresak aurkezturiko jarduera proiektua oraindik tramitazioan dagoela eta oraindik ez zaiola jarduera baimenik eman. Ondorioz, ez dago obra baimenik ematerik uraren kontadorea jartzeko, ezta atea egiteko ere.

15.- M.G.A., Bainuetxeko tren geltokiko egoeraren inguruko idatzia aurkezten du, zikinkeria handia dagoela eta garbitzeko eskatzen du. Erabaki da udal bridadak urak bideratzea behin-behinekoz, egurra pilatu duten enpresei garbitzeko 15 egunetako epea ematea eta egur enpresei jakinaraztea hemendik aurrera ezingo dela gune horretan egurra pilatu.

16.- J.A.G., Arroabeko San Isidro auzunea 14 eraikinean igogailuko obrak iraun bitartean, beheko solairuko lokalean logela bat egokitze aukeraren inguruko kontsulta egiten du. Erabaki da jakinaraztea igogailuko obrak egin bitartean, beheko solairuko lokalean logela bat egokitze baimena eman aurretik hainbat dokumentazio aurkeztu beharko duela udalean.



17.- J.A.G., Aizanako 05 poligonoko 008 partzelan oilo erruleentzako eraikuntza proiektua eta salbuetsitako jardueraren txostena aurkezten ditu. Erabaki da jarduera martxan jartzeko aurkeztutako dokumentazioa ontzat ematea, akordioan ezarritako baldintzen arabera.

18.- J.L.E.A., Arroa Beheko Artzubia aldea ibardiaren berreskurapen eta hobetze lanen inguruko kamioi erregistroa aurkezten du, 2017ko abenduko hilabeteari dagokiona. Erabaki da jaso izanararen adierazpena egitea.

19.-I.M.Z., Ariztondo plaza 5 erakinean bi etxebizitzekin bat egiteko aukeraren inguruko kontsulta egiten du, etxe barrutik eskailerak aterata. Erabaki da jakinaraztea ez legokela eragozpenik eskailera ateratzeko eta edozein aldaketa edo obra egin aurretik, dagozkion baldintza teknikoak betetzen direnaren jakinarazpena aurkeztu beharko duela Udalean.

20.- Araziri, Ekainberriko 10. urteurrena aurten ospatzen dela eta, Zestoako hainbat lekuetako faroletan Ekainberriko eta Lili Jauregiko banderolak jartzeko baimena ematea.

21.- J.M.I.A., Aizarnako Legoyaga baserriaren jabetzakoak diren hainbat lur dituela eta partzela bat segregatzeko udal baimena ematea, segregatutako zatia beste terreno bati gehitzeko.

22.- Zestoako Udalak, herriko erdigunean usoekin dagoen arazoa. 2017ko azaroaren erdian, zenbait herritarren kexak jaso ondoren, Zestoako Udalak toriletan kaiola handi bat jarri zuen usoak erakartzeko. Zenbait aste igaro ondoren, ikusi zen usoak ez zirela bertaratzen, eta abenduaren 1aren ondoren, kanpandorrea egonkortzeko lanen zaratarekin, oraindik ere zailagoa ikusi zen usoak erakartzea. Ikusirik kaiolaren sistemarekin ez dela lortu usoen arazoa konpontzea, erabaki da espezializatutako enpresekin kontaktuan jarri eta zein beste aukera dauden aztertzea.

23.- Zestoako Udalak, Etorra auzoko ur-horniduraren proiektua. Ondarbaso baserriko bizilagunek udal ur-hornidura sarea Ordarbaso baserriraino eramateko eskaera egin dute. Ikusirik edozein pausu eman aurretik aurre-azterketa bat egitea beharrezkoa litzatekeela soluziorik egokiena zein den ikusteko, aurrekontuak eskatuko dira ingenieritza enpresetan eta ondoren erabakiko da aurre azterketa egin edo ez.

Batzorde informatiboan bileren akten onarpena

2018ko urtarrilaren 18an, Auzoak eta Baserriak Batzordeak eginiko bileraren akta onartzea.

2018ko urtarrilaren 23an, Kultura Batzordeak eginiko bileraren akta onartzea.

2018ko urtarrilaren 25ean, Kultura Batzordeak eginiko bileraren akta onartzea.

2017ko azaroaren 24an, Ongizate Batzordeak eginiko bileraren akta onartzea. (* Akta honetako 12. puntuan gizarteratze teknikariari lanaldia igotzea proposatu da.Tokiko



ZESTOAKO UDALA

Gobernu Batzordeak ez du proposamena onartu. Gizarteratze teknikoa, udalak Eusko Jaurlaritzan eskatutako diru laguntza baten baitan hasi zen lanean. Hasiara batean Fondo Formacion enpresari ordaintzen zitzaion eta enpresa honen langilea zen gizarteratze langilea. Urtez urte diru laguntza gutxitzen joan den neurrian, udalak osatu du bere lanaldia. 2018an diru laguntzarik ez da izango eta gizarteratze teknikoaren kostua udalak jasotzen du eta udalak lan kontratu bidez. Batzordekideek adierazi dute, inongo hautaketa prozesurik egin gabe ezin dela langile bat kontratatu eta, beraz, lanaldia ez igotzeaz gain, postu hau ezin dela luzatu).

4.- ALKATETZA EBAZPENAK.- Honako Ebazpenen berri eman da:

- * 2 zk, Erdikalea 9 eraikineko aleroko hiru egur aldatzeko obretako udal baimena.
- * 3 zk, Erdikalea 1 eraikineko teilatu zati bat apurtu zutela eta berau konpontzeko obretako udal baimena.
- * 4 zk, S.A.N.i udal jabetzako baso pista eta bidea erabiltzeko udal lizentzia.
- * 5 zk, A.L.G. urte beterako peoi bezala bitarteko funtzionario izendapena.
- * 6 zk, I.A.E. urte beterako peoi bezala bitarteko funtzionario izendapena.
- * 7 zk, Zubimusu kalea 3 4.ezkerra etxebizitzako obretako hondakinak jasotzeko kontainerra bi egunez jartzeko udal baimena.
- * 8 zk, A. I. U. nabearen zati batean egin den etxebizitzari lehen erabilera baimena.
- * 9 zk, A. I. U.ri, Txiribogako lastategi estaliaren obra amaierako dokumentazioa ontzat eman eta lehen erabilera baimena ematea.

Galdera eta erreguak.- Ez da egon.

Zestoan, 2018ko azaroaren 23an

Idazkaria,

O.e

Alkateak,